

## Alde handiz irabazi eta lider jarri da Eladio Jimenez Tolosan

**IHESA** ▶ Ihesaldi luzea burutu zuen salamancarrak; Aketza Peña bigarrena eta Cavallari hirugarrena

**ALDEA** ▶ Tropela eta faboritoak hamar minutura iritsi ziren Euskal Bizikletako bigarren etapan ▶ 2,3



Eladio Jimenez irabazlea ikusleei txanpaina botatzen San Frantzisko pasealekuko helmugan. LEIRE MONTES

**IRURA** ▶

### 1,6 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak

Frontoiaren itxiera eta Kultur Gune berria dira inbertsio nagusienak ▶ 5



Bidaor etxearen atzealdean dago Kultur Gune berria. IMANOL GARCIA

**TXARAMA** ▶

### Denentzako egitaraua biharko jaietan

Pailazoak, afaria, bertsolariak eta trikitilariak ▶ 6

**LEITZALDEA** ▶



JAIONE ASTIBIA

### Geldialdiak izan dituzte Leitzaldeko ikastetxeetan

«Eskola publikoa hondatzearen kontra» daude ▶ 7

**LEITZA** ▶

### Umeak protagonista gaur ▶ 7

EUSKAL BIZIKLETA ▶

# Eladio Jimenez, ikaragarri

Comunidad Valenciana taldeko ziklistak irabazi zuen atzo Tolosan bukatutako bigarren etapa, eta bera da lider; Aketza Peña, Euskaltel-Euskadikoari 2,39 minutu atera zizkion; Palomaresi eta Cavallariri, 3



Eladio Jimenez, pozarren, Tolosako helmugara iristen; erakustaldi bikaina eskaini zuen espainiarrak; zaleek erruz bete zuten San Frantzisko pasealekua. I. ETXEBESTE


## LEIRE MONTES IRATXE ETXEBESTE

Eladio Jimenez, Comunidad Valenciana taldeko txirindulariak irabazi zuen atzo Euskal Bizikletako bigarren etapa, Sopela (Bizkaia) eta Tolosa artekoa. Erakustaldi bikaina egin da irabazi ere. Bigarrenari, Euskaltel-Euskadiko Aketza Peñari, bi minutu eta 39 segundoko aldea atera zion, eta hiru minutu eta bi segundokoa helmugara hurrenak ailegatu ziren Adrian Palomaresi (Kaiku) eta Stefano Cavallariri (Team Barloworld-Valsir). Atzo halako abantaila lortuta, Salamancakoa (Espainia) izango da, okerrik ezean, 2005eko Euskal Bizikleta irabaziko duena. Hemendik hiru egunera Arraten (Bizkaia) amaituko da orotara 739,6 kilometro izan dituen aurtengo lasterketa.

Helmugarako ia 50 kilometro falta zirela, Lazkaoemendi inguruan jo zuen eraso Eladio Jimenezek, eta ihesean egin zituen Tolosako San Frantzisko pasealekurainoko kilometroak. Bakar-bakarrak zeharkatu zuen helmugako arrastoa, 181,5 kilometroko ibilbidea 04.34.59tan osatuta. Tropela, berriz, multzo ezberdinetan, oso zatikatuta heldu zen zortzi minutu baino gehiagoko atzerapenarekin; horien artean zi-


## 2. etapa, Sopela – Tolosa / 181,5 km

ATZO (irteera: 12:57)



## 3. etapa, Tolosa – Oroko Santutegia / 145,9 km

GAUR (irteera: 13:50)



ren Pavel Tonkov, Team L.P.R.-koa eta Joseba Albizu, Euskaltel-Euskadikoa, esaterako. Atzo arte liderra zen Liberty Seguros-Würth Team etxeko Angel Vicioso atzerago zetorren oraindik; hamaika minutu galdu zituen.

Beste bederatzi gizonekin batera —Luis Leon Sanchez (Liberty Seguros), Aketza Peña, (Euskaltel), Jose Mario Almagro (Relax Fuenlabrada), Adrian Palomares (Kaiku), Stefano Cavallari (Team Barloworld-Valsir), Vladimir Efimkin (Team Barloworld-Valsir), Nicolas Crosbie (Agritubel), Mauro Santambrogio (Team L.P.R.) eta Jesus Del Nero (Orbea)— sartu zen hasieratik Jimenez eguneko lehen ihesaldian, Larraitzen gora bakar-bakarrak alde egin zuen arte. Lehen ihesaldian lagun izan zituen hiru, Peña, Cavallari eta Palomares izan ziren, hain zuzen ere, helmugara Comunidad Valencianako txirindulariaren atzetik heldu zirenak.

Hortaz, lider berria da Jimenez, eta sailkapen nagusian bigarren dira Palomares, 02:39ra eta hirugarren Cavallari, 02:43ra. Mendiko sailkapenean ere Salamancakoa da lider, eta atzetik du Aketza Peña euskal txirindularia. Gainerakotzat etapa garaipen bat, besterik ez da jokoan izango



**Larraitz.** Larraitzeko mendatea igotzen hasi baino lehen, Lazkaoemendin, apurtu zuen lasterketa Eladio Jimenez Comunidad Valencianako txirrindulariak. Tropelarekiko zuen aldea handituz joan zen Altzora bidean: harengandik 7 minutu eta 38 segundora iritsi zen taldea. I. ETXEBESTE



**Auto karabana.** Besteak beste, kazetarien, teknikarien, laguntzaileen, antolatzaileen, zerbitzueta arduradunen, epaileen eta taldeen autoak iladan iritsi ziren Larraitzeko gainera. L. MONTES



**Alkiza.** Alkizako plazara ere ihes eginda iritsi zen Eladio Jimenez. Herritar asko zituen zain udaletxe atarian eta inguruetan salamancarrak. Handik aurrera ziurtatu egin zuen garaipena. JOKEMI SAIZAR

egunotan, itxura guztien araber.

Zer edo zer bereziki nabarmentzekorik bada, atzokoan bero itzela egiten zuela. Kazetari batek baino gehiagok «Tolosako sauna» aipatu zuen lasterketaren kontakizuna egite-rakoan. Horrexegatik, txirrindulari gehienak «itota» heldu ziren helmugara. Halaxe adierazi zioten, behintzat, Kaikuko Dioni Galparsorok eta Jon Bruk HIZARI. Azken hori bigarren zen atzo arte sailkapenean, baina zortzi minutu galdu zituen Sopelatik Tolosarako etap-pan, eta zazpigarren da orain.

Bestalde, eskualdeko errepide inguruak jendez betetarikus zitezkeen arratsaldeko lehen orduetatik. Larraitzen eta Alkiz-azan jende eta zaletu mordo-a bildu zen, adibidez; ez da harr-

itzekoa, txirrindulariak lanean ikusteko aukera handiena malda inguruetan izaten delako ia beti. Tolosako San Frantzisko pasealekuan ere jendetza bil-du zen; hala ere, horiek ez zu-ten apenas erakustaldirik ikusi ahal izan, oso gutxi izan zire-lako helmugara espreinean sartu ziren txirrindulariak. Tropele-an zetozenek, batez ere, lasai egin zuten azken kilometroa.

**Biharkoa, Tolosan hasita**

Tolosan, Usabal kirolgune be-rriarren ondoan abiatuko da bihar Euskal Bizikletaren hiru-garren etapa, 14:00etan, San Frantzisko pasealekuraino. Ohiko irteera neutralizatua egin ostean, zazpi minutu be-randuago irteango dira txirrind-ulariak bertatik Benta Aundi

aldera. Bidegoiandik pasatu, eta Urrakiko mendatea, 2. mailakoa, igo beharko dute lehe-nik, gero, Azpeitia aldera joate-ko. Azkarateko gaina (3. maila-koa) zeharkatu, eta Elgoibar aldera joango dira ondoren. Ei-barretik Ermuara, Areitio (3. mailakoa) igo, eta Zaldibar in-gurutik Artearako errepidean sartuko dira. Artean bertan dago tarteko helmuga.

Jarraian Bikotz, 2. mailako mendatea igo beharko dute klistek, eta Bizkaia atzean utzi-ta, Orozkotik sartuko dira Ara-ban: Baranbion, hain zuzen ere. Altube gainetik (2. maila-koa) Murgia eta Bitorian pa-satu, eta Oroko santutegian izango du helmuga etapak. 2. mailako mendate horretan bu-katuko da biharkoa, beraz, 135,80 kilometroko ibilia.

**SAILKAPENAK ▶**

**2. ETAPA**

Izena	Denbora
1. Jimenez, Eladio (ECV)	4:34:59
2. Peña, Aketza (EUS)	2:40ra
3. Cavallari, Stefano (TBL)	3:03ra
4. Palomares, Adrian (KAI)	d.b.
5. Efimkin, Vladimir (TBL)	5:11ra
6. Almagro, Jose (REF)	6:17ra
7. Santambrogio, Mauro (LPR)	7:16ra
8. Rodriguez, Joaquin (SDV)	8:00ra
9. Bru, Jon (KAI)	d.b.
10. Tonkov, Pavel (LPR)	d.b.
11. Albizu, Joseba (EUS)	d.b.
12. George, David (TBL)	d.b.
13. Latasa, David (ECV)	d.b.
14. Golcer, Jure (ASA)	8:04ra
15. Gonzalez, Aitor (EUS)	8:20ra
16. Arreitunandia, Pedor (TBL)	8:32ra
17. Barredo, Carlos (LSW)	8:50era
18. R. de Larrinaga, Javier (KAI)	d.b.
19. Galparsoro, Dionisio (KAI)	d.b.
20. Bonilla, Jose Adrian (ECV)	d.b.

5. Cavallari, Stefano (TBL)	6
6. Palomares, Adrian (KAI)	4
7. Oarbeaskoa, Ruben (KAI)	4
8. De la Fuente, David (SDV)	3
9. Cox, Ryan (TBL)	3
10. Almagro, Jose (REF)	1

**ERREGULARTASUNA**

Izena	Puntuak
1. Bru, Jon (KAI)	27
2. Jimenez, Eladio (ECV)	25
3. Vicioso, Angel (LSW)	25
4. Rodriguez, Joaquin (SDV)	24
5. Cavallari, Stefano (TBL)	22
6. Palomares, Adrian (KAI)	21
7. Peña, Aketza (EUS)	20
8. Astarloa, Igor (TBL)	14
9. Efimkin, Vladimir (TDL)	12
10. Latasa, David (ECV)	11

**TARTEKO HELMUGAK**

Izena	Puntuak
1. Perez, Luis (REF)	5
2. Almagro, Jose (REF)	4
3. Jimenez, Eladio (ECV)	3
4. Santambrogio, Mauro (LPR)	3
5. Isasi, Iñaki (EUS)	3
6. Dupont, Jubert (RAG)	2
7. Efimkin, Vladimir (TBL)	1
8. Caballari, Stefano (TBL)	1
9. Cox, Ray (TBL)	1
10. Bertuola, Alessandro (NSM)	1

**NAGUSIA**

Izena	Denbora
1. Jimenez, Eladio (ECV)	8:34:18
2. Palomares, Adrian (KAI)	2:40ra
3. Cavallari, Stefano (TBL)	2:44ra
4. Peña, Aketza (EUS)	5:38ra
5. Santambrogio, Mauro (LPR)	7:16ra
6. Rodriguez, Joaquin (SDV)	7:34ra
7. Bru, Jon (KAI)	d.b.
8. Latasa, David (ECV)	d.b.
9. George, David (TBL)	8:00ra
10. Tonkov, Pavel (LPR)	d.b.
11. Albizu, Joseba (EUS)	d.b.
12. Golcer, Jure (ASA)	8:04ra
13. Gonzalez, Aitor (EUS)	8:20ra
14. Isasi, Iñaki (EUS)	8:24ra
15. Arreitunandia, Pedro (TBL)	8:32ra
16. Barredo, Carlos (LSW)	8:50era
17. R. de Larrinaga, Javier (KAI)	d.b.
18. Galparsoro, Dionisio (KAI)	d.b.
19. Bonilla, Jose Adrian (ECV)	d.b.
20. Jeker, Fabian (SDV)	9:17ra

**TALDEAK**

Izena	Denbora
1. Team Barloworld (TBL)	25:58:23
2. Comunitat Valenciana (ECV)	55era
3. Euskaltel Euskadi (EUS)	3:05era
4. Kaiku (KAI)	3:35era
5. Team L.P.R. (LPR)	10:04ra
6. Liberty S.-Würth Team (LSW)	14:21era
7. Saunier Duval-Prodir (SDV)	18:29ra
8. Naturino-Sapore di Mare (NSM)	19:05era
9. R.A.G.T. Semences (RAG)	21:57ra
10. Orbea (ORB)	24:28ra

**MENDIKOIA**

Izena	Puntuak
1. Jimenez, Eladio (ECV)	37
2. Peña, Aketza (EUS)	15
3. Sanchez, Luis Leon (LSW)	12
4. Efimkin, Vladimir (TBL)	9

**UTZIERAK**

Izena	Taldea
1. Caruso, Giampaolo	LSW
2. Burgos, Nacor	REF
3. Dulac, Nicolas	RAG
4. Albizuri, Beñat	ORB

**tolosand blues 05**  
ekainak 3/4/5

Ekainak	Ordua	Ordua	Ordua	Ordua
Ekainak 3	20:00	23:00	Lector Artea	Pyrene Jazz Orchestra
3 de junio	20:00	23:00	Franses Kabinaga	The Croppers
Ekainak 4	20:00	22:00	Franses Kabinaga	Mikal Aguirre Trio
4 de junio	00:00	00:00	Plaza Berria	De 2 en Blues Band
Ekainak 5	21:00		Franses Kabinaga	Big Mama + Juan Pao Gonzalez
5 de junio	21:00		Plaza Berria	Blues Wander

## ANOETA ▶

Mikel Garciaren  
oromeneizko  
krosa ez da egingo

Mikel Garciaren oromenez egin ohi zen krosa aurten ez dela egingo azaldu dute Anoetako Udaletik.

## IBARRA ▶

San Bartolomeko  
zozketako  
txartelak salgai

San Bartolome jaietako zozketako txartelak salgai daude. Danon Txokoa, Arkaitzazpi, Txumitxa, Atari, Sendi ekintza eta Zubiaurre tabernetan erosi ahaliko dira. Aurten dirua Txilera bidaliko da.

## AMEZKETA ▶

Betizu jaterako  
txartelak salgai  
etzi arte

Etzi amaitzen da Ugarte auzoan ekainaren 11rako antolatutako betizu-jaterako txartelak erosteko epea. 25 euroren truke Goikoetxea tabernan.

## MANIFESTAZIOA ▶

Bihar Bilboko  
manifestaldira  
joateko deialdia

Abaltzisketa, Alegia, Altzo, Orendain, Ikaztegieta eta Balaiaingo herritarrei deialdia luzatu zaie bihar Bilbon *Orain herria, orain bakea* leleopean izango den manifestaldira autobusez joateko. Bi geldialdi egingo dira: Ametzetan 15:00etan herriko plazan eta Alegian 15:15ean zubian. Ibarren 15:30ean Kultur Etxe parean. Bestalde, Villabonan Iratzar tabernan eta Tolosan ohiko lekuetan eman behar da izena.

## TOLOSA ▶ MUSIKA

Pyrineos Jazz  
Orkestrak irekiko du  
Tolosandblues jaialdia

Gaur hasi eta igandea bitarte jazz eta blues doinuen sei emanaldi eskainiko dira Tolosan jaialdiaren lehen edizioan



Gaztañaga, Izagirre, Iturzaeta, Martin eta Agirre aurreko astean eginiko prentsaurrekoan. IRATXE ETXEBESTE

## NOELIA LATABURU

Pyreneos Jazz Orchestra taldeak zabalduko du gaur, 20:00-etatik aurrera, Tolosandblues, blues eta jazz doinuak uztartuko dituen jaialdia. Igandea bitarte «eskarmendu eta arrakasta handia» duten musikariak ariko direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Blues eta jazz jaialdiaren lehen edizioa Tolosako Fronton kafetegian, Leidor zinema aretoan eta Plaza Berrian garatuko da eta batetik eta bestetik helduko diren musikariak ariko dira hiru egun hauetan zehar, herriko musikariei «merzei

duten garrantzia» emango zaielarik. Horrela, bihar Mikel Azpiroz Trio euskal musika taldeak jardungo du Fronton kafetegian, non bi tolosar aritzen diren, Mikel Azpirozekin batera: Carlos Aranzegi baterian eta Txema Garces kontrabaxuan.

## Taldea arrakastatsuen bisita

Guztira sei emanaldi izango dira entzungai aipatu gunetan eta guztiak ere doan eskainiko dituzte, gaur arratsaldean jaialdia irekitzen duen Pyreneos Jazz Orchestra taldearena izan ezik. Azken hauek ikuste-

ko sei euroko sarrera ordaindu beharko da Leidor zinema aretoan.

Taldea 2003. urtean sortu zen, Akitania eta Euskal Herriko musikariek osatuta. «Jazz doinuek mugarik ez dutela» filosofia oinarri hartuta. Urte berean *Pyreneos Jazz Orchestra* CD-a argitaratu zuten, entzule zein kritika aldetik arrakasta handia erdietsiz. 2003. an Euskal Herrian eskaini zuten kontzertuan, besteak beste, egunkarietako taldea «kalitatezko» jo zuten eta emanaldia, berriz, «arrakastatsutzat». Oraingoan, Tolosa bisitatuko dute erreperitorio berriarekin.

## EGITARAUA ▶

Blues eta jazz doinuak uztartuko dituzte Tolosandblues jaialdian eskainiko dituzten sei emanaldiek.

## GAUR

20:00. Pyreneos Jazz Orchestra Leidor areto zinemaren.

23:00. The Croppers, Fronton kafetegian.

## BIHAR

20:00. Mikel Azpiroz Trio, Fronton kafetegian.

22:00. De 2 en Blues Band, plaza berrian.

23:00. Big Mama eta Joan Pau Cumellas, Fronton kafetegian.

## ETZI

21:00. Blues Blaster, Plaza Berrian.

Taldekoko  
partaideak

Hauek dira 2003. urtean sortu zen Pyreneos Jazz Orchestra taldekoko partaideak: tronpetak, Pascal Drapeau, Lauren Agnes, Ramon Garcia eta Jean Loustalot; tronboiak, Fidel Founeyron, Sebastian Arruty, Juan Carlos Aoz eta Guillaume Kuntzel; saxofoiak, Ion Robles, Mikel Andueza, Gorka Benitez, Victor de Diego eta Josexo Silguero; piano eta teklatuak, Iñaki Salvador bada ere, ordezko bat ariko da; kitarra elektrikoa, Dani Perez; kontrabaxua eta baxu elektrikoa, Gonzalo Tejada (hau ere ordezkatuko dute); bateria, Didier Ottaviani eta ahotsa, Laura Ridruejo.

Emanaldian 11 pieza berri eskainiko dituzte. *Di que si, 3 y 4=34, Forest Flower, First Piece, Ez da posible, Nada especial, Recuerdos, Cantaloupe island, Stanley the steamer, Skylark* eta *Young and fine*. ◀



# Albisteonak

Euskadiko Kutzako bezeroentzat



Euskadiko Kutxak aukera ezin hobea eskaintzen die bere bezeroei **SEAT bat %16 merkeago eskuratzeko**

Euskadiko Kutxak hitzarmen bat egin du SEATEkin, eta horren arabera **nomina bertan helbideratua** duten bezeroek **%16 merkeago** eskuratu ahal izango dute gogokoen duten SEAT autoa. Horrela, erosketa Euskadiko Kutxaren bidez finantzatzuz, beharpen berezi horretaz baliatu ahal izango dira.

HERNIALDE ▶ KULTURA

# Ikus-entzunezkoa eta antzerkia, gaur eta bihar

Patagoniari buruz ariko da 'Marron' eta 'Nora hoa neska?' izango da antzezlanak

ERREDAKZIOA

Kultur eskaintza bikoitza izango da asteburuan Hernialden, biak kultur etxean, Kutxaren laguntzaz. Gaur, 20:30ean hasita, Jose Ramon Agirre *Marron* mendizale eta abenturazaleak *Patagonia* ikus-entzunezkoa eskainiko du. Aurrez

aurre jartzen ditu paisaiaren edertasuna eta bertakoen bizimodua.

Bihar, 20:00etan hasita, *Nora hoa, neska?* antzezlanak. Komedia horrek gaur egungo emakume askoren egoera islatzen du. Edurne Agirrezabala eta Begonia Amonarriz dira aktoreak.

IRURA ▶ AURREKONTUA



Kultur Gune berria aurten inauguratu nahi du Udalak. IMANOL GARCIA

VILLABONA ▶ GIZARTEA

# 59. urteurrenaren jaia Behar-Zanak asteburuan

ERREDAKZIOA

Behar-Zana kirol elkarteak 59. urteurrena ospatuko du asteburuan. Bihar, 10:00etan, eskuzko pilota partiduak (pilota eskolako gaztetxoaren entrenamenduak); 17:00etan, buruhandi eta erraldoiak, Loatzoko eskolako ikasleek alaiturik; 18:00etan, joko garbiko parti-

da; 19:00etan, hildako elkartekideen aldeko meza; 20:00etan, afaria elkartean; 23:00etan, danborrada Incansables txarangarekin; ondoren eta 02:30ak arte elkartean dantzaldia Incansables-ekin. Etzi, igandean, 09:00etan: diana; 11:30ean: errebote partida; 14:30ean, bazkaria elkartean (gonbidatuak bakarrik).

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA

# Jesusen Bihotzaren ikasturte bukaerako jaia

ERREDAKZIOA

Jesusen Bihotza Ikastolak ikasturte bukaerako jaialdia egingo du bihar. 15:00etatik 16:00etara DBHkoen arteko futbol partidak eta mus txapelketa DBHko ikasleen, irakasleen eta gurasoen artean. 15:30ean, trikitilari gazteen kalejira herriko kaleetan. 16:00etatik 16:30era, kros herrikoia Txermin auzoan. 16:30etik 18:00etara ikasleek prestatuturiko *Ikuskizun mundiala* ikastolako bertsolari

gazteek aurkeztua, eta gaztetxoeren eskulanean erakusketa. 18:00etan, pailazoaren emanaldia. 19:00etan, Eresargi Ttipiren emanaldia. 19:30etik aurrera trikitilari gazteen trikiti saioa. Ondoren, afari-merienda Txermingo estalpean.

# 1.632.000 eurokoa izango da aurtengo udal aurrekontua

Egingo diren inbertsioetan frontoiaren itxierara eta Kultur Gune berrira bideratuko dira kopuru nagusienak

IMANOL GARCIA

Irurako Udalak aurtengo aurrekontua onartu du eta 1.632.211 eurokoa izango da. Gastuen atalean inbertsio errealek eramango dute kopuru handiena, 561.460 euro. Pertsonal gastuetarako 478.400 euro bideratuko ditu Udalak. Beste gastu nagusi bat, ondasun arrunt eta zerbitzuetan izango da, 391.100 eurokoa.

Inbertsioetan kopuru nagusia pilotalekuaren itxierara bideratuko da. Beste kopuru nagusi bat Kultur Gune berrian likidazioa eta altzarien erostetarako erabiliko da. Aurten nahi du Udalak Kultur Gunea martxan jarri.

Marimi Ugalde alkateak bi egitasmo nabarmendu ditu aurtengorako. Alde batetik arau subsidiarioen berraztertzea egingo da eta horretarako «jendearen partaidetza bultzatuko da». Bestalde, herriko ikastolaren inguruan egingo den ikerketa aipatu du alkateak: «Aurten laugarren maila arte Iruran gelditu dira haurrak. Lehen lehenengo mailatik Anoetara joaten ziren. Haurrek Iruran ikastea esfortzu handia eskatzen du. Gainera herrian dagoen eskola bakarra da eta eskola bera, gurasoak eta Udala oso inplikatuak daude proiektuan. Aurten ikerketa bat egingo da eskolaren etorkizuna zehazten joateko».

INBERTSIOAK ▶

Gaia	Kopurua
Oria ibaia	41.960
Lan topografikoak	16.000
Ikastolaren ikerketa	28.000
Arau subsidiarioak	17.400
Osasuneko proiektua	7.000
Kultur Gunea	115.000
Pilotalekuaren ibieria	120.000
Zaharren Egoitza	18.000
Hirigintzarako altzariak	18.000
Artxiboaren antolaketa	22.500
Informa. materiala	1.600
Loatzoko seinaleztapena	13.000
Lanpostuen balorazioa	16.000
Lokal erosketa	56.000
Informa. proiektuak...	18.000
Mendiko bidea	3.000
Udalerriak 2000 plana	50.000

**ELOLA**  
bede ALTZARIAK

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotratuak neurria.

Tel.: 943 65 29 01  
Lizardi poeta, 2  
lo egiteko eta atsedean hartzeko onena **TOLOSA**

**OSTATUA**

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu  
Tel.: 943 67 15 48

**Tovar**  
Lipsova, Moskua, Errusia

colegio ikastetxea  
**PRESENTACIÓN DE MARÍA**

**LANBIDE HASTAPENA**  
**ESPEZIALITATEAK:**

- ELEKTROGAILU KONPONKETA LAGUNTZAILEA
- INFORMATIKA EKIPOEN KONPONKETA LAGUNTZAILEA
- INSTALAKUNTZA SINGULARRETAN LAGUNTZAILEA: MEGAFONIA, ANTENAK, ALARMAK, PORTERO AUTOMATIKOAK

**MATRIKULA ZABALIK**

Mandasko Dukea, 1 • 20012 DONOSTIA  
Tel./Faxa: 943 46 01 45 • CIPP.MARIA@terra.es

TXARAMA ▶ JAIK

# Bihar izango dira Txaraman Herri Jaiak

Adin guztiei zuzenduriko egitaraua prestatu dute egun osoko festarako



Koko eta Moko pailazoak aritu ziren izazko jaietan. OLAIJA ESKITXABEL

IÑIGO TERRADILLOS

Bihar egun osoan festa handia izango dute Txaraman, herri jaiak ospatzen baitituzte. Goizeko suziariaren ondoren patata tortila lehiaketako parte hartzaileek etxean egindako tortilak aurketu beharko dituzte. Irabazleak urdaiazpiko eder bat irabaziko du. Bestalde, goiz osoan zehar auzoko argazki zaharren erakusketa izango da ikusgai. Argazkiren bat uzteko prest daudenak festa batzordekoekin jarri beharko dute harremanetan. Arratsaldean pailazoak eta txokolatada izango da eta ondoren helduen eta gazteen arteko apustua. Gauean, herri afarian Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertso-lariak eta Saioa eta Alabier trikitilariak alaituko dute giroa.

## EGITARAUA ▶

Txaramako herri jaiak izango dituzte bihar. Adin guztiei zuzenduriko askotariko ekitaldiez gozatzeko aukera izango da.

### BIHAR

**11:00.** Suziria jaiari hasiera emateko.

**11:30.** Patata tortila dastaketa.

**12:30.** Toka txapelketa.

**Goiz osoan.** Auzoko argazki zaharren erakusketa.

**17:00.** Korri ta Xalito pailazoaren emanaldia.

**Ondoren.** Txokolatada.

**18:00.** Helduen eta gazteen arteko apustua.

**21:00.** Herri afaria bertsolari eta trikitilariekin.

IBARRA ▶ KULTURA



Iazko Ikastolaren Egunean gaztetxoak jolasean. D.GIBELALDE

## Uzturpek Ikastolaren Eguna izango du bihar

Triatlota, pilota, bazkaria, Musika eskolako eta Alurr-en saioa eta hockey izango dira

I.TERRADILLOS

Uzturpe Ikastolak urtero bezala, Ikastolaren Eguna izango du. Bihar izango da ikasle, irakasle zein guraso bilduko dituen festa.

Goizean, triatlota izango da Zumardi Handian, krosa, zaku karrera eta patinaia probekin. Eguerdian, ederki pasako dute gaztetxoek herriko plazan joko desberdinetan jolas-tuz. Ondoren, tokaren txanda izango da, guraso eta irakasleak ere ariko direlarik.

Bazkariaren ostean, musika eskolako saioa eta Alurr dantza eskolako gaztetxoaren saioa izango dira ikusgai. Alurr-en kasuan lehenbizikoz mutilen taldea aurkeztuko dute *Txotxongilo* eta *Belauntxingo* dantzekin. Azkenik, hockey partidua ikusteko aukera izango da. Herritar guztiak gonbidatu nahi ditu Uzturpek festara.

## EGITARAUA ▶

### BIHAR

**10:30.** Zumardi Handian triatlota: krosa, zaku karrera eta patinaia izango dira probak.

**12:00.** Herriko plazan: 2-5 urte bitarteko haurrentzat jolasak, 6-11 urteko haurrentzat alborraren bila jolasa DBH-ko ikasleek antolatuta.

**13:00-14:00.** Herriko plazan tokan ariko dira gurasoak, ikasleak eta irakasleak. Pilota partiduen finalak ere izango dira ikusgai.

**14:00.** Kiroldegian, bazkaria trikitilariak alaituta.

**Ondoren.** Ikasleek eskolaz kanpoko ekintzetan landu dutenaren erakustaldia: Musika Eskolako saioa, Alurr dantza eskolako gaztetxoaren saioa eta hockey partidua izango dira ikusgai.

## ASTEBURUKO EGITARAUA ▶

GAUR

### ARETO FUTBOLA

**Nesken Kopa.**  
Idiazabal-Laskorain 21:00 (Zelaa)

### PILOTA

#### HITZA txapelketa

**Alebinak** Albiztur  
Jauregi/Arrue-Etzenike/Mujika 19:00  
Artola/Muruia-Lucia/Mancisidor  
Sasiain/Manzisor-Encinas/Arandia  
Ebeberria/Mugiondo-Mabinea/Arratibel

### Kadeteak

**Bidania**  
Madariaga-Yeregi 19:00  
Mitxelena-Sarasola  
Telletea-Sagastibeltza

BIHAR

### ARETO FUTBOLA

**Nesken ohorezko maila.**  
Preconte Telde-Hegoalde K.E. 18:00 (Telde)

### Nesken Kopa.

Altzakoa-Tinta Billabona 17:00 (Altza)

### FUTBOL 7

#### Bigarren maila.

Lanbroa Dickens-Amazar taberna 11:50 (Lasarte 2)  
Bial-Lanbroa Dickens 17:50 (Lasarte 2)  
Ademar Santander-Lanbroa Dickens 19:30 (Lasarte 1)

### FUTBOLA

#### Kadeteen maila.

Mariño C.D.-Billabona K.E. 18:00 (Irun)

### PILOTA

#### Alebinak.

Bergara-Kuku B 16:00 (Arrasate)  
Lazkao-Alegia 16:00 (Alegia)  
Ataun-Kuku A 16:00 (Alegia)

### HITZA txapelketa

**Infantilak** Aduna  
Ebeberria/Santxo-Urbieta/Urbieta 16:00  
Irazusta/Jauregi-Les/Zinkunegi  
Josu/Daboz-Aldasoro/Insausti  
Altuna/Calarraga-Oiarbide/Garmendia

### Benjaminak.

**Alegia**  
Ibarzabal/Tolosa-Arandia/Zabala 16:00  
Egiguren/Garziarena-Manterola/Garikano  
Amiano/Mujika-Oiarbide/Navarro  
Ubarretena/Noble-Larrea/Rezola

### Etorkizunekoak.

**Beotibar**  
Armendariz/Astiz-Renobales/Huarte 10:00

### FUTBITOAK

#### Tolosa Kup (Santa Luzia kiroldegia).

Txanpa-Fujimori 14:00  
Drink In Team-Armetx jatetxea 14:35  
The Apalanch-Ordago 15:10  
Ikatz-Vendo Papamovil 15:45  
Itaie-Amárotz 16:20  
Wasper-Saiatzegatik 16:55  
Los Nomos-Bonberenea 17:30  
Ekaitz-Gokugol 18:05  
Samberoak-Vespa Boys 18:40  
Pupo-Aqui hay tomate 19:15

hitza **txokoa** lagun

HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu

943 30 43 46  
(8:30 / 20:30)

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'LAS TORTUGAS TAMBIEN VUELAN' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

**XABIER ARTOLA AGIRRE** HITZAren harpidedun laguntzaile alegiarra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

## HEZKUNTZA ▶



Erleta eskolako irakasleek elkarretaratzea egin zuten atzo. J. ASTIBIA

# Ezetzta, eskola publikoaren hondatzeari

Nafarroa osoan bezala geldialdiak egin dituzte Leitzaldeko ikastetxeetan ere

JAIONE ASTIBIA

«Eskola publikoa hondatzearen kontra». Horixe zioten atzo eguerdian Erleta ikastetxeko irakasleek egin zuten elkarretaratzean, zeramatzen esku-otriek.

Nafarroako irakaskuntza publikoan greba deialdia egin zuten atzorako, ordezkariak duten sindikatu guztiek —LAB, EILA, ELA, UGT, CCOO, ANPE, CSIF eta AFAPNA—, eta Leitzaldean Erleta eskola eta Amazabal institutuak jarraitu zuten deialdia: Erletako irakasleen osotasunak, 21 ari dira guztira lanean, egin zuten deituta zegoen ordu beteko lanuztea eta errepede bazterrean, elkarretaratzea ere egin zuten; Amazabal institutuak, berriz, 30 irakasletatik 20ek egin zuten, kasu honetan, bi orduko geldialdia. Aresoko eskolan, besteetan bezala, bestalde, «zerbitzu minimoak ziurtatu beharrez», azaldu zuten, ez zuten geldialdirik egin. Bi irakasle eta erdi ari dira eskolan lanean eta, bat eta erdirekin beteko zituzketen zerbitzu minimoak. Kontuak kontu, Leitzaldeko irakaskuntzan, %71ko jarraipena izan zuen atzokoa, Nafarroa osorako egina zegoen geldialdi deialdiak.

Elkarretaratzeak iraun zuen bitartean HITZARI azaldu ziotenez «eskola publikoa gero eta egoera kaskarragoan dago» eta horren aurrean bi salaketa egin nahi izan zituzten. Alde

batetik, «Hezkuntzako sare publikoaren finantzaketara bideratutako aurrekontu partidak ez dira nahikoak, inolaz ere», baieztatu zuten. Izan ere, egunetik egunera, ikastetxetara «azpiegituretarako, baliabideetarako, zerbitzu minimoak bermatu ahal izateko laguntzak gero eta tikiagoak eta bakanagoak dira», zioten: «matrikulazioan %17,5eko igotza izanda ere, ez da partidariak handitu. Okerragoa dena, %30ean murriztu egin dute», baieztatu zuten. Horren harira, Leitzan bertan, Erleta eskolan, «OHOKO ikasleak leku bakarrean elkartzeko helburuz, Agrikola modura ezagun den eraikinean ikasten duten haurrak, Erletakora igaro eta DBHkoak horra erkatzeko egindako eskariak berak, ezezko borobila jaso du», adierazi zuten, nonbait «2011 arterainoko diru partidak xahututa omen dauzkatela eta», azaldu zuten.

Baina eguneko aldarrikapen bakarra ez zen hori izan. «Hezkuntza Departamenduak dekretuz funtzionatzeko duen modua» ere salatu baituzten. «Ikastetxeekin, sindikatuekin batera kontaktu gabe erabaki», eta «NAOren bidez enteratzen gara gauzetaz», salatu zuten.

Han adierazi zuten, «gure umeen heziketa dago jokoan: kalitatezko hezkuntza publikoa bermatu behar dugu. Eta hori denon artean egin beharkekoa da. Guraso, irakasle, gizarte osoarena», zioten.

## ARESO ▶

## Olazabalek galdu egin du Elgetako txapelketan

Olaetxearen aurka, 10 tanto eginda, lehiaketatik kanpo gelditu da

J. ASTIBIA

Gaur zortzi jokatu zuen zortzirenetako kanporaketako partidua Mikel Olazabalek eta Olaetxearen aurka, 22-10ekoa atera zuen.

Orain arte, txapelketa honetako partidu guztiak irabaziz etorri da Aresoko pilotari gaztea eta zortzirenak arte iristea lortu du.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun zentroa: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua:

889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ekeba:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua:

653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa:

690720

▶ **Leitza.** Osasun zentroa:

948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdiak:

461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aitzondo zerbitzua:

693930

**Garraioak.**

▶ Renfe Tolosa: 652889

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udalaitzaga: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurrarendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

## LEITZA ▶ XXVII. KULTUR ASTEA

## Goiz eta arratsalde, gaur umeak protagonista

Kulkirekin arrantzaleen jostaketak aurrena eta Aralar musika eskolako kontzertua gero

J. ASTIBIA

Aurtengo Kultur Astea ere azken asteburura hurbiltzen ari delarik, ohi dutenez, batez ere haur eta umeentzat bideratutako eguna izanen da gaurkoa. Halaxe uler daiteke, egitarauari erreparatuz gero: goizetik hasita jostaketan ariko dira eta arratsaldean kontzertu-emaile bihurtuko dira.

Izan ere, goizean, 10:30ean, Erleta eskolako jostalekuan, Kulki taldearekin jostaketan ibiliko dira eskolome guztiak. Oraingoan, gainera, «arrantzaleen jokoekin» heldu direla argitu dute antolatzaileek, lehorrekoak izaki, itsasaldekoek zer joko mota egiten dituzten jakitea eta ezagutzea «interesgarri» idurituta.

Guztira, 14 joko izanen omen dituzte aukeran, «adin guztienez», ziotenez: lema-kulunka, gurpila, balea-txirrista, autobatela, masta kukaina, txanela kulunka, xaia, kaia kukaina, lamia... Guztiak ere, garai batean arrantza giroan egiten omen zirenak eta talde honek egindako dokumentazio lanaren ondorioz, berreskuratze bidean jarri nahi lituzkeenak, beraiek ziotenez.

Eta goizeko arrantza girotik, arratsaldeko musika saiora egiten dute jauzi: Aralar musi-



Joseba Iriondo hizketaldian. J. A.

ka eskolako ikasleek kontzertua eskainiko baitute zineman, 19:30ean hasita. Ikasturtean zehar jotzen ikasitako mota guztietako musika tresnekin eta kantuz ere, beste hainbeste estilotako doinuekin osatutako errepertorio zabala entzutekoa ez ezik, ikustekoa ere izanen da.

Igarotako ekitaldiei begiratu, berriz, aipatzekoa da herenegun iluntzean Joseba Iriondok, Irak eta Afganistango gerrateetan berriemaile zelarik, berak bizitutako eman zuten hitzaldia ere oso interesgarria suertatu zela. Etorri handikoa, «komunikabideen jokaera», «auzian inplikaturakoen nortasunaz»... hainbat argibide eman zituen.

## LEITZA ▶ HEZKUNTZA



## Udaberri Eguna ospatu dute

J. Astibia ▶ Erletako tikienekin festa eguna izan zuten atzokoa: Udaberri Eguna. Jostalekua beraiek egindako marrazkiekin apaindu eta nahiko jostaketa egin zuten: aulki jokoa, soskor bilketa, dantz... Bidenabarrean, gurasoek gosaria ekarri zuten eta jokoak bukatzerako mahaia bete jaki prestatuta zuten, eta ondoren hamaketa ederra egin zuten. J. ASTIBIA



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Lizartza.** Nerea Herrarteren ipuin kontaketa 17:30ean udaletxean.

**Tolosa.** Aste Berdearen barruan, kaleko ekintzak Trianguloan 17:00etan..

**Tolosa.** Galiziako ardo zurien aurkezpena udaletxean 20:00etan. aretoan.

**Tolosa.** Pastoral urtearen ebaluaketa 20:00etan Santa Mariako aretoan.

**Orexa.** Nerea Herrarteren ipuin kontaketa kultur gelan 18:30ean.

**MUSIKA**

**Larraul.** Herriko Ostatuan Kean rock taldea 22:30ean.

**Tolosa.** Udal Musika Eskolako 1. zikloko ikasleen kontzertua 19:00etan eskolako aretoan.

**Tolosa.** Atila y los Unos. Otsabi auzo lokalean 22:30ean.

**Tolosa.** Brasildar festa Ieltxu tabernan: 20:45ean Bosanova Jose Barrio eta Ana Viera-ren eskutik.

**ZINEMA**

**Gaztelu.** *Sang Woo y su abuela.* Kontzejuan 19:30ean

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren 95. 112.  
**Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa et. 2. 943 65 46 10.

**IRRATIA**

**Txolarre**

11:14:00. *Tolosaldeko ahotza:* Eskola Publikoaren festa, Uzturperen festa, agenda, Bilgune Feminista, eguraldia...  
19:00. Errepikapena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Elkartasunak irabazi du

**TOLOSA ▶ 600 lagunetik gora elkartu zituen, Beotibarren, Gure Txokoa elkarteak antolatutako 'Frontoitik eskolara, Tolosatik Saharara' pilota jaialdiak**



Kirolariak, udal ordezkariak, Gure Txokoako eta Tolosaldea Sahararekin-ekoak, amaieran. I. ETXEBESTE



Erruz bete zen Beotibar pilota jaialdi berezia jarraitzeko. LEIRE MONTES



Bakero-Alonso (urdinez) eta Argote-Ziganda (gorritz), agurtzen. L. MONTES

**LEIRE MONTES**

Sahararekiko elkartasunak irabazi egin zuten, herenegun, Beotibarren. Baita lagunarte eta festa giroak ere. Gure Txokoa elkarteak, 75. urteurrenean, *Frontoitik eskolara, Tolosatik Saharara* pilota jaialdi berezia antolatu zuen. Eta jendeak bikain erantzun zion deialdiari: 600 lagunetik gora elkartu zituen ekimenak.

Mikel Bellosok eta Ugaitz Renobalesek zabaldu zuten jaialdia. Partida polita eskaini zieten zaleei. Renobalesek irabazi zuen. 22-19. Santi Bakero 'Periko' Alonso eta Estanis Argote 'Kuko' Zigandaren artekoak Realzaleen eta Athleticzaleen animoak piztu zituen. Txuri-urdinek irabazi zuten, 25-15. Argotek jokalarri jatorrenari saria jaso zuen. Garikoitz Mendizabalek eta Euskitzek ere 25-15 irabazi zieten Inaxio eta Joxean Tolosa anaiei. Txistularien eta dultzainarien doinuekin gozatu zuten jokalarri zein zaleek. Eta zortea lagun izan zutenek afaria irabazi zuten.

**SARITUAK ▶**

- 463. Burruntzi jateketa.
- 583. Agustin jateketa.
- 565. Beti Alai jateketa.
- 609. Fronton jateketa.
- 441. Usabal sagardotegia.
- 672. Julian erretegia.
- 445. Sausta jateketa.
- 379. Orue erretegia.
- 073. Zuloaga Txiki aterpea.
- 578. Izaskun jateketa.



**AGURRAK ▶**

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jauntzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAREN egoitzara; ekarri argazkia



**URTE ASKOAN**

Loinaz Peña Olazabal.  
Gaur urtebete. Zorionak ebekoen eta, bereziki, Jon Ander eta Aneren partez.



**URTE ASKOAN**

Maddi Iraeta Zubelzu (Tolosa). Gurasoen eta familiarren partetik, zorionak.



**URTE ASKUAN**

Maria Goenaga (Alkiza). Muxu handi bat denon partez zure egunean. Armona, a pagar chocolate.



**URTE ASKOAN**

Nahia Esnaola. Gaur urtebete. Zorionak, pobola. Muxu handi bat denon partez.